

## **Ekainak 28**

Berdintasun Batzordearen Adierazpena

### **GUZTION NEURRIKO ATAUN**

LGBT+ pertsona gehienak hirietatik at sortu dira. Herrietan sortu, hazi eta bizi(raun) izan dira, herrietako dinamika itxiek hirietara erbesteratu dituzten arte, "sexilioa" aukeratu duten arte. Hirietara aniztasunaren, bizigarritasunaren, sarearen, komunitatearen bila jo izan dute. Han jarri dituzte beren gogo eta asmoak, noizbait errotzeko asmoz.

Baina, funtsean, zergatik uzten du herria LGBT+ pertsona batek? Zergatik egiten dute "ihes" hirietara? Zergatik da hain garrantzitsua beren komunitateak herrian bertan sortzea?

Ataun moduko herri txikietan sumatzen den hutsunea, hain zuzen, hirietan LGBT+ pertsonak orain arte egin duten lanak guztia da. Sexu- eta genero-aniztasunak urteetan egindako hausnarketak eta praktikak herrietan ere egitea falta zaigu.

Sexu-askapenaren diskurtsoak bertako komunitateak busti behar ditu; gutxika-gutxika, herriko dinamika sozialak irauli. Heteroarauaren mugak puskatu behar dira, guztiontzat herri eta komunitate bizigarriak sortzeko.

Herriz herri eta bailaraz bailara sexu-askapenean oinarritzen den aniztasuna landu behar dugu.

Elkarrekin egin dezagun guztion neurriko Ataun!

- **Ataungo EHBildu**
- **Ataungo EAJ**
- **Ataun Irratia**
- **Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxea**
- **Agauntza Guraso Elkarte**
- **Atsedentoki Jubilatuen Elkarte**
- **Biboletak Talde Feminista**
- **Eate Abesbatza**
- **Jentilbaratza Kultur Elkarte**
- **Otsoak Dantza Taldea**
- **Torto Gazte Asanblada**
- **Murkondo Kultur Elkarte**
- **Barandiaran Museoa**

## EGITARAUA

- Ekainaren 22an, asteartea, 19:00etan hitzaldi-tailerra udaletxeko pleno-aretoan: ***Sexu- eta genero-aniztasuna herri txikietan***. Hiruki Larroxa kooperatibako kideen eskutik.
- Ekainaren 28an, astelehena, 19:30ean **ELKARRETARATZEA** San Martingo plazan.